

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

KULTURA ETA HEZKUNTZA SAILA

Hezkuntza

Hezkuntza-premia berezien arloko elkarteek antolatutako hezkuntza-jardueretarako laguntzen deialdia eta oinarriak, 2026-2027 ikasturtea

Tokiko Gobernu Batzarrak 2026ko martxoaren 27n eginiko ohiko bileran, onetsi egin dira hezkuntza-premia berezien arloko elkarteek antolatutako hezkuntza-jardueretarako laguntzen deialdia eta oinarriak, 2026-2027 ikasturtea.

Urriaren 1eko 39/2015 legearen 45.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, oinarri horiek argitaratzen dira guztiek jakin dezaten.

1. Erregulazioa

Deialdi honetako dirulaguntzak, bertan aurreikusitakoaz gain, honako hauek arautuko dituzte: Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren erreglamenduak (uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua) eta Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzei buruzko ordenantza orokorraren (aurrerantzean, dirulaguntzei buruzko ordenantza orokorra). Ordenantza hori 2023ko apirilaren 21eko Osoko Bilkuran onartu zen, eta uztailaren 28an argitaratu zen ALHAOn, Vitoria-Gasteizko Udalak ematen dituen dirulaguntzak emateko prozedura arautzeko oinarri orokorrak ezarteko.

Deialdi honetara aurkeztu nahi duten entitateek dirulaguntzen ordenantza orokorrera jo behar dute, ezagutzeko entitateek bete behar dituzten baldintzak eta betebeharrak, dirulaguntzak justifikatzeko modua, etab.

2. Hitzaurrea

Vitoria-Gasteizko hiriak, hiri hezitzaile den aldetik, badu asmo osoz gauzatu nahi duen helburu bat: bertan bizi diren pertsona guztien prestakuntza, sustapena eta garapena. Ildo horretatik, bere egiten du aniztasunari erantzun beharra hezkuntza inklusiboaren esparruko jardueren bidez, hau da, pertsona guztiek kalitatezko hezkuntza aukera-berdintasunean, eta modu bidezkoan eta ekitatiboan jasotzea bermatzen duen hezkuntzaren bidez; mehatxu handienak jasaten dituzten kolektiboak erreparatuko die bereziki hezkuntza horrek, hau da, desorekak eragin ditzaketen egoera gehien pairatzen dituzten kolektiboak. Dirulaguntzen deialdi hau testuinguru horretan biltzen da, hain zuzen.

3. Dirulaguntzen plan estrategikoa

Dirulaguntzen deialdi hau 2025eko urtarrilaren 17an Tokiko Gobernu Batzarrak onartutako dirulaguntzen plan estrategikoan (2025-2027) jasota dago.

2026-2027 ikasturtean egingo diren proiektuei laguntzea du helburu, baldin eta, aipatutako eremu horretan, honako helburu hauek badituzte: hezkuntza-komunitatea sentsibilizatzea, ikasleak edota haien familiak edota irakasleak babestea eta gaitzea, hezkuntza-eremuan elkarri laguntzea eta sareak prestatzea, eta eremu horretan genero-berdintasuna sustatzea.

4. Erakunde onuradunak

Deialdia desgaitasunen batek edo jokabide-nahaste larriren batek eragindako hezkuntza-premia berezien eremuko elkarteei zuzenduta dago. Irabazi-asmorik gabeko elkarteak izan behar dute, eta beren egoitza soziala Vitoria-Gasteizen izan behar dute, behar bezala justifikatutako salbuespenezko kasuetan izan ezik. Ezin izango dira elkarte onuradun izan Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorraren 11. artikuluan jasotako inguruabarrak betetzen dituzten elkarteak.

5. Baliabide ekonomikoak

Gehienez ere 20.000,00 euroko kreditua zuzendu du deialdi honetara Kultura eta Hezkuntza Sailak (Hezkuntza Zerbitzua), 2026-2027 ikasturteari begira. Honela banatzen da zenbateko hori:

- 10.176,00 euroko kreditua gehienez, 2026ko udal-aurrekontuan Kultura eta Hezkuntza Sailari dagokion 2319.03.3261.48175 aurrekontu-partidaren kargura.
- 9.824,00 euroko kreditua gehienez, betiere 2027ko udal-aurrekontuan kreditu egokia eta aski badago.

6. Diruz lagundu daitezkeen proiektuak

Diruz lagunduko dira 2026ko irailaren 1etik 2027ko uztailaren 31ra bitartean garatzen diren hezkuntza-jarduerak, baldin eta honako proiektu mota hauetakoren bat edo batzuk badakarte:

- Hezkuntza-komunitateari zuzendutako sentsibilizazio proiektuak, hezkuntza-premia bereziak dituzten pertsonen gizarte- eta hezkuntza-inklusioa bultzatzeko.
- Ikasleei edota haien familiei zein irakasleei zuzendutako laguntza- eta trebakuntza-proiektuak, hezkuntza-premia bereziak dituzten pertsonen gizarte- eta hezkuntza-inklusioa bultzatzeko.
- Behar bereziak dituzten pertsonen, haien familiei edota irakasleei zuzendutako proiektuak, sexuaren eta generoaren arabera antzemandako desberdintasunak aztertzen dituztenak.
- Hezkuntza-premia bereziak dituzten pertsonen gizarte- eta hezkuntza-inklusioa sustatzeko, hezkuntza-esparruan laguntza- eta lan-sareak eratzea bultzatzen duten proiektuak.

7. Eskabideak eta dokumentazioa aurkezteko epea eta tokia

7.1. Aurkezteko epea: eskabideak eta dokumentazioa aurkezteko epea irekita egongo da deialdi honen oinarrien laburpena ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita 2026ko maiatzaren 29a arte, azken egun hori barne. Eskabideak epez kanpo aurkeztea dirulaguntzak emateko prozeduratik kanporatzeko arrazoi izango da.

7.2. Eskabideak eta dokumentazioa aurkezteko lekua: eskabideak herritarrentzako arreta-bulegoetan aurkeztu daitezke, bai eta Vitoria-Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoan eta legez aurreikusitako gainerako moduetan ere, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, xedatutakoaren ildotik.

8. Aurkeztu beharreko dokumentuak

Honako dokumentu hauek aurkeztu behar dira:

- Elkarteko presidenteak sinatutako dirulaguntzaren eskabidea, horretarako eskuragarri dagoen ereduaren arabera (SSUN_001 eranskina, udaleko web orrian eskuragarri dagoena).
- 1. eranskina. (SAED_001 eranskina, udalaren webgunean eskuragarri dagoena). Udaleko beste sail edo zerbitzu batzuen deialdietan proiektu bererako eskaririk ez duela aurkeztu egiaztatzen duen erantzukizunpeko adierazpena.
- 2. Eranskina: Proiektua (SNEE_002 eranskina, udalaren webgunean eskuragarri dagoena). Proiektua eranskinean jasotakoaren arabera aurkeztu beharko da eta honako hauek jasoko ditu:
 - Proiektuaren azalpen laburra.
 - Justifikazioa eta aurrekariak.

- Helburuak eta espero diren emaitzak.
- Hartzaileak.
- Jarduerak eta metodologia.
- Irisgarritasuna eta kontziliazioa sustatzeko neurriak.
- Sexuaren eta generoaren arabera desberdintasunak saihesteko edo zuzentzeko ekintza eta jardura espezifikoak.
- Euskararen erabilera.
- Proiektua denboran kokatzea.
- Kokapen fisikoa.
- Ebaluazio sistema.
- Aurrekontua.

Hezkuntza Zerbitzuan dirulaguntza lehen aldiz eskatzen duten elkarten kasuan, edota datuak aldatu badira, honako hauek ere aurkeztu behar dira:

— Eskabidea sinatzen duen pertsonak ordezkatzeko ahalordea duela egiaztatzen duen agiria eta pertsona fisikoaren Nortasun Agiri Nazionalaren (NAN) fotokopia, eskaera egin duen elkarreko legezko ordezkariarena, zehazki, Hezkuntza Zerbitzuan aurkeztutako azken eskaerarekiko aldatu egin bada.

- Elkartearen estatutuak.
- Elkartea Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarten Erregistro Orokorrean edo, hala bada, gogio, dagokion erregistro publikoan legez eraberrita dagoela egiaztatzen duen dokumentazioa.
- Identifikazio fiskaleko txartelaren fotokopia.
- Banku-erakundeak emandako ziurtagiri eguneratua; agiri horretan, kontu-zenbakia eta kontuaren titularra agertuko dira, kontuan hartuta, betiere, elkarreko izan behar duela titularra.

Eskabideak deialdi honetan ezarritako baldintzak betetzen ez baditu, organo eskudunak interesdunari hamar eguneko epean zuzentzeko eskatuko dio, eta adieraziko dio hala egiten ez badu eskabidean atzera egin duela ulertuko dela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan aurreikusitako baldintzetan eman beharreko ebazpenaren ondoren.

9. Beste dirulaguntza batzuekiko bateragarritasuna

Elkarte onuradunek ezin izango dute proiektu bera aurkeztu udaleko beste sail edo zerbitzu batzuen dirulaguntzetarako deialdietara.

Deialdi honen barneko dirulaguntza hau bateragarria izango da beste administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatu batzuek emandako dirulaguntzekin. Nolanahi ere, dirulaguntzen bidez eta beste diru-iturri batzuetatik lortzen den finantzaketaren zenbatekoak ezin du gailentzea, inoiz ere, diruz lagundutako jardueraren kostu osoa.

10. Dirulaguntza emateko prozedura

Dirulaguntzak norgetiagok prozeduraren arabera emango dira, 11.puntuan ezarritako irizpideen arabera.

Eskabideak jaso, baldintzak egiaztatu eta eskabide horiek izapidetzeko onartu ondoren, txosten teknikoa eta ebazpen-proposamena egingo dira, oinarri hauetan zehaztutako irizpideekin bat etorrira.

Horretarako, kide anitzeko organo bat eratuko da, eskumena izango duena, batetik, eskabideak, bestetik, aurkeztutako hezkuntza-jarduketako proiektuak eta, azkenik dirulaguntzak emateko proposamena baloratzeko. Hezkuntza Zerbitzuko buruak, Hezkuntza Ekintzen Ataleko arduradunak eta atal bereko teknikari batek osatuko dute.

Hezkuntza Zerbitzuak ofizioz egingo ditu dirulaguntzak emateko ebazpen-proposamena taxutzeko baliatuko diren datuak zehaztu, ezagutu eta egiaztatze beharrezkotzat jotzen diren jarduerak.

Aipatutako organoak eskumenak izango ditu dirulaguntzak emateari buruzko edozein zalantza argitzeko. Eskabide guztien balorazioa jaso eta gero, txosten tekniko bat egingo du, eta deialdi honen ebazpen-proposamena Kultura eta Hezkuntza Saileko zinegotzi ordezkariari igorriko dio ebatz dezan, deialdi hau ebazteko eskumena baitu Tokiko Gobernu Batzarrak dirulaguntzen arloan eskumenak eskuordetzeko 2025eko maiatzaren 16an hartutako erabakiaren arabera.

11. Dirulaguntzen zenbatekoa zehazteko irizpideak

Dirulaguntza bakoitzaren zenbatekoa atal honetan aurreikusitako banaketa-sistema aplikatuz zehaztuko da, honako irizpide hauen arabera:

a) Aurrekontu osoaren ehuneko 50 zati berdinetan banatuko da onartutako elkarten artean, baldin eta proiektuaren balorazioak gutxienez 25 puntu lortu baditu b) atalean.

b) Gainerako aurrekontuaren ehuneko 50a, aurkeztutako proiektuaren balorazioan lortutako puntuazioaren arabera, kalitateari, koherentziari eta irismenari dagokienez. Atal honetan gehienez 50 puntu lor daitezke.

Dirulaguntza lortzeko, aurkeztutako proiektuak gutxienez 25 puntu lortu beharko ditu atal honetan.

Honako alderdi hauek baloratuko dira:

1. Proiektuaren helburuak: 5 puntu, gehienez. Helburuak esku hartu nahi den testuingurura egokitzea, eta haien eraginkortasun maila. Era berean, proiektuaren helburuen artean genero-berdintasuna ikuspegi intersektionaletik sustatzen duen helbururen bat egotea baloratuko da.

2. Jardueren proposamena: gehienez 30 puntu.

— Jardueren koherentzia, proposatutako helburuekiko: gehienez 4 puntu.

— Jarduerak talde hartzaileen arabera egokitzea: 3 puntu gehienez.

— Jardueren koherentzia proiektuan aurreikusitako giza baliabideekin eta baliabide material zein ekonomikoekin: gehienez 3 puntu.

— Jarduerak garatzean erabili beharreko metodologia egokitzea: gehienez 3 puntu.

— Hezkuntza-eremuan laguntza- eta lan-sareak sortzea edo haiekin bat egitea sustatzen duten jarduerak egitea eta metodologiak erabiltzea: gehienez 4 puntu.

— Erakundearen instalazioetatik edo espazio propiotik kanpo egin beharreko jarduerak edota erakundeko kide ez diren pertsonen zuzendutakoak: gehienez 4 puntu.

— Euskararen ahozko erabilera proiektuaren garapenean: 3 puntu, gehienez.

— Sexuaren eta generoaren arabera desberdintasunei heltzen dieten ekintza eta jardura espezifikoak egitea: 3 puntu, gehienez.

— Irisgarritasuna eta kontziliazioa sustatzeko neurriak aplikatzea: ordutegiak egokitzea, komunikazioak, mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeko edota artatzeko zerbitzua: 3 puntu, gehienez.

3. Jardueren kolektibo hartzaileak: gehienez 10 puntu.

- Hezkuntza-komunitatea sentsibilizatzeko neurriak eta jarduerak sartzea: 5 puntu, gehienez.
- Jarduketetan aurreikusitako parte-hartzaileen kopurua eta haren egokitasuna, inplementatu beharreko jardueraren izaerarekin eta irismenarekin bat etorritik: 5 puntu, gehienez.

4. Ebaluazioa: gehienez 5 puntu. Baloratuko da, batetik, proiektuak proposatutako jarduerak baloratzeko alderdiak eta irizpideak barne hartzen dituen eta, bestetik, genero-ikuspegia duen amaierako memoria bat egiteko adierazle egokiak proposatzen dituen.

Dirulaguntzen deialdi honek duen kreditua honela banatuko da:

- Erakunde onuradun bakoitzari eman beharreko dirulaguntzaren zenbateko osoa a) eta b) atalen baturatik abiatuta zehaztuko da. Erakunde onuradunei emango zaien gehieneko dirulaguntza 5.000,00 eurokoa izango da.
- Gehieneko zenbatekoaren irizpidea aplikatu ondoren, soberako kopuru bat badago, diruz lagundu beharreko gehieneko kopurua lortu ez duten erakunde eskatzaileen artean banatuko da. Horretarako, a) atalean ezarritako irizpideei jarraituko zaie.

12. Ebazteko eta jakinarazteko epea

12.1. Deialdiaren ebazpena gehienez hiru hilabeteko epean emango da, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunetik zenbatzen hasita. Epe horretan berariazko ebazpenik eman ez bada, dirulaguntzaren eskaera ezetsi egin dela ulertuko da.

12.2. Dirulaguntzak emateko edo ukatzeko ebazpenaren jakinarazpenak ALHAOn eta Vitoria-Gasteizko Udaleko iragarki-oholean egingo dira, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Babesteari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Legearen irizpideei jarraituz.

12.3. Dirulaguntzak emateko edo ukatzeko ebazpenak amaiera emango dio administrazio-bideari, eta, haren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da zuzenean Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegietan, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Hala ere, aldez aurretik, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio egintza eman duen organoari, hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Kasu horretan, ezin izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri, egintza berariaz edo ustez ebatzi arte. Ondoren, berariazko ebazpena ematen bada, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzeko epea bi hilabetekoa izango da, egintza jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita; bestela, edozein unetan jarri ahal izango da, berariazko araudiaren arabera administrazio-isiltasunaren ondorioak gertatu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Hala ere, interesdunek egokitzat jotzen duten beste edozein gauza dezakete, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

13. Ebazpenaren aldaketa

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 64. artikuluen arabera, laguntza emateko ebazpena eman ondoren, onuradunak haren edukia aldatzeko eskatu ahal izango du, oinarri arautzaileetan horretarako aurreikusitako inguruabarrak gertatzen badira, legearen 17.3 l) artikuluan ezarritakoaren arabera, eta hori baimendu ahal izango da, baldin eta hirugarrenen eskubideak kaltetzen ez baditu.

14. Dirulaguntzen ordainketa eta justifikatzeko modua

14.1. Dirulaguntza ordaintzea: udalak ordainketa aldez aurretik egingo du, bi zatitan:

- Lehenengoa, 2026ko aurrekontuaren kargura.
- Bigarrena, 2027ko aurrekontuaren kargura. Horretarako, kreditu egokia eta nahikoa egon beharko da 2027ko udal-aurrekontuan.

Erakunde onuradunek Hezkuntza Zerbitzuak egin beharreko kontrol- eta egiaztapen-jarduerak bete beharko dituzte, bai eta Vitoria-Gasteizko Udaleko Kontu Hartzailletza Nagusiari dagozkion finantza-kontrolekoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari buruzko otsailaren 5eko 1/1998 Legean edo eskumen hori esleitua duten beste organo batzuetan aurreikusitakoak ere.

Nolanahi ere, Hezkuntza Zerbitzuak, justifikazioa egiaztatzeko fasean, egiaztatuko du elkarte onuradunak aurkeztutako aurrekontuaren zenbatekoa bat datorrela azkenean gauzatutako eta justifikatutako zenbatekoarekin. Hala ez bada, elkarteak itzuli egin beharko ditu (osorik edo zati batean) behar ez bezala justifikatutako zenbatekoak eta dagozkien berandutze-interesak, dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37.1 b) eta c) artikuluan ezarritako kasuetan.

14.2. Dirulaguntza justifikatzeko epea: emandako dirulaguntzaren justifikazioa batera egingo da, aldi bakarrean. Gastuen justifikazioa aurkezteko epea 2027ko irailaren 30ean amaituko da, egun hori barne hartuta.

Ezarritako justifikazio-epea igaro eta justifikaziorik aurkeztu ez bada, Hezkuntza Zerbitzuak onuradunari eskatuko dio hamabost egun balioduneko epe luzaezinean aurkezteko. Justifikazioa aurrez ezarritako epean aurkezten ez bada, itzulketa eskatuko da eta, hala badagokio, dagozkion zehapen-espedienteak hasiko da. Justifikazioa epe horretan aurkezteak ez du onuraduna salbuesten izan ditzakeen zehapenetatik.

14.3. Dirulaguntzaren justifikaziorako aurkeztu beharreko dokumentazioa:

Honako agiri hauek aurkeztu behar dituzte elkarte onuradunek:

a) Proiektuaren memoria (SNEE_003 eranskina, udalaren webgunean eskuragarri dagoena). Garatutako proiektuari buruzko azalpenak, egindako jarduerak eta lortutako emaitzen berri ere emanda.

Horretarako, honako hauek erantsiko dira:

— Diruz lagundu den proiektuan egin diren azterlan, programa, argitalpen, iragarki-kartel eta dokumentazio grafiko eta idatziaren ale bana, Vitoria-Gasteizko Udalak erakunde laguntzaile gisa duen logotipoarekin.

— Euskararen erabilerari buruzko jarraipen-fitxa, diruz lagundutako zerbitzuaren garapenean erabilitako euskarrietan hizkuntza ofizialen idatzizko erabilerari eta ahozko erabilerari buruzkoa (FSUE_001, udalaren webgunean eskuragarri dago).

b) Justifikazio-kontu arrunta (COJU_001, udalaren webgunean eskuragarri dagoena). Bertan, jardueren kostua justifikatzen duen memoria ekonomikoa jasoko da, honako atal hauek barne hartzen dituena:

— 1. atala. Proiektua edo jarduera beste erakunde publiko edo pribatu batzuek ere finantzatzen badute eta/edo erakunde onuradunak baliabide propioak baditu, bete egin beharko da.

— 2. atala. Diruz lagundutako proiektuari dagozkion gastuen egiaztagirien zerrenda, udal-dirulaguntzari egozten zaizkionak. Gastu-motak, pertsona edo erakunde hartzekodunaren identifikazioa, kontzeptua, data eta zenbatekoa, 2. atalean jasotzen den bezala. Gainera, jatorrizko fakturak eta horiek ordaindu direla egiaztatzen duen agiria erantsiko dira.

— 3. atala. Proiektuaren diru-sarreraren eta gastuen balantzea.

— 4. atala. Langileen eta Gizarte Segurantzaren gastuak. Eranskin hau beteko da diruz lagundutako proiektuaren langile-gastuak eta Gizarte Segurantzakoak justifikatzeko, erakunde edo pertsona onuradunaren kargurako nominak eta TCak erantsita (egungo RNT eta RLC), dagozkien ordainketa-egiaztagiriekin batera. Era berean, PFEZaren atxikipenen 110 hiruhileko ereduak eta/edo urteko 190 ereduak aurkeztuko dira, dagozkien ordainketa-egiaztagiriekin batera.

- Eta erantzukizunpeko adierazpena, deialdi honetarako, horrela zehazten da:
- Fakturak eta ordainagiriak aurreikusitako helburua edo xedea betetzeko sortu zirela eta Vitoria-Gasteizko Udalaren ekarpenarekin finantzatu direla dioen aitortpena.
- Proiektua garatzeko soldatapeko langilerik ez izatearen adierazpena.
- Pertsona edo erakunde onuradunaren aitortpena, diruz lagundutako proiektua finantzatu duten beste dirulaguntza edo diru-sarrera batzuk zehazten dituen, zenbatekoa eta jatorria adierazita, edo, hala badagokio, proiekturako beste dirulaguntzarik eskatu ez duela edo jasotzen ez duela adierazten duen adierazpena.

14.4. Justifikaziotik kanpo gelditzen diren gastuak.

Deialdi honetatik kanpo geratzen dira gastu hauek:

- Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntza-deialdi espezifikoak dituzten proiektuak.
- Elkartearen ekipamendu-, funtzionamendu- eta mantentze-gastuak.
- Proiektua garatzeko behar den ekipamendua, hala nola instalazioak, altzariak, tresnak eta abar.
- Ekitaldi gastronomikoak.
- Lehiaketak eta sariketak

15. Elkarte onuradunen betebeharrak

Deialdi honetan araututako dirulaguntzen onuradun diren elkarteek honako betebeharrak dituzte:

- Diruz lagundutako jarduerak eragin ditzakeen arriskuen ardura hartzea eta, hala badagokio, aseguru egokia hitzartzea.
- Diruz lagundutako proiektuak irisgarriak diren lokal edo espazioetan egingo dira, abenduaren 4ko 20/1997 Legeak, Irisgarritasuna Sustatzekoak, xedatzen duenarekin bat etorruta (EHAA, 1997ko abenduaren 24koa); eta, horrez gain, apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuak, hiri-inguruen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzen buruzkoak (EHAA, 2000ko ekainaren 12koa), garatutako arau teknikoak bete beharko dira.
- Diruz lagundutako jarduerak eta proiektuak liburuxken, kartelen, buletin eta blog elektroniko bidez nahiz oro har herritarrei zuzendutako beste edozein euskarri bidez zabaltzean, bi hizkuntza ofizialak erabili beharko dira, euskara eta gaztelania, eta hizkera eta irudi ez-sexistak erabiltzen direla bermatu beharko da. Baldintza hori betetzen ez bada, dirulaguntza osoa edo zati bat itzuli beharko da. Betebeharrak horren jarraipena egingo da, elkarte onuradunak aurkeztutako dokumentazio guztia aztertuz.
- Sexu Delitugileen Erregistro Orokorrean deliturik ez dutela egiaztatzen duen ziurtagiria: urtarrilaren 15eko 1/1996 Legeak, Adingabearen Babes Juridikoarenak, Kode Zibila eta Prozedura Zibileko Legea hein batean aldatzen dituenak (haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzen duen 26/2015 Legeak, uztailaren 28koa, aldatu zuen), Boluntariotzari buruzko 45/2015 Legeak urriaren 14koa, eta Haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurka erabat babesteari buruzko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoak haxe xedatzen dute: normalean adingabeekin egotea eskatzen duten lanbide, ofizio eta ekintzetan sarbidea izateko baldintza izango da epai irmo baten bidez sexu-askatasunaren eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delituengatik zigorrak jaso ez izana. Horretarako, dirulaguntzaren onuradun izan diren erakundeek jarduera horiek gauzatzeko kontratatutako langileei zera eskatuko diete: Sexu Delitugileen Erregistro Nagusiaren ezezko ziurtagiria, Erregistro horrek berak emana. Espainiako nazionalitatea ez duten pertsonen kasuan, ziurtagiri horrez gain, beren nazionalitateari dagokien herrialdeko ziurtagiria aurkeztu beharko

dute. Ezezko ziurtagiri horiek aurkezteko eskatu ahal izango die udalak erakunde onuradunei edozein unetan.

— Ez sortzea zuzeneko edo zeharkako diskriminazioa dakarren programa, proiektu edo jarduerarik.

— Eta Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorrean jasotako gainerako betebeharrak.

15. Informazioa eta aholkularitza

Deialdi honen esparruan dirulaguntza eskatzeko interesa duten elkarteei informazioa eta aholkua emango die Hezkuntza Zerbitzuak. Argibide-eskaerak egin ahalko dira: 945 161227 / 945 161230 - hezkuntza@vitoria-gasteiz.org.

16. Itzultzea

Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzei buruzko ordenantza orokorraren 40. artikuluan adierazitako kasuetan, jasotako zenbatekoak itzuli beharko dira, eta berandutze-interesak eskatuko dira, dirulaguntza ordaintzen denetik itzuli behar dela erabakitzen den egunera arte, edo zordunak itzulketa sartzen duen egunera arte, hura baino lehenagokoa bada, dirulaguntzei buruzko araudi orokorrean eta administrazio-prozedura erkidean xedatutakoaren arabera.

Jasotako zenbatekoak eta berandutze-interesak itzuli behar badira, Kutxabankeko udal-kontu honetan egingo dira: ES03 2095 0611 03 1090952416; ondoren, diru-sarreraren egiaztagiria aurkeztuko dute Hezkuntza Zerbitzuan.

Vitoria-Gasteizen, 2026ko martxoaren 27an

Kultura eta Hezkuntza Saileko zinegotzi ordezkaria
SONIA DÍAZ DE CORCUERA RUIZ DE OÑA